

# Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketarako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat (1898-1940)

Oskar Alvarez Gila  
EHUko irakaslea

Euskal Herriko Eliza katolikoaren barnean euskal abertzaletasuna zabaldu zenean, abertzaletasun espainiarrari oso loturik zegoen hierarkia gogor agertu zen apaizgo honen kontra. Hori dela eta, hasieratik apaizgo abertzale honen zenbait partaidek Ameriketako erbesterako bidea hartu zuen, karlistadetatik holako joerak ez baitziren euskaldunentzat ezezagunak. XX. mendearen lehenengo hamarkadan autoerbesteratze isolatuak gertatu ziren; hurrengoan apaiz hauen kontrako erasoaldi bortitz eta antolatuen ostean alde-egiteak areagotu ziren; azkenean, Gerla Zibilaren zioz mugimendurik kopurutsuena eman zen.

Korrante honen eragina bikoitza izan zen. Batetik, Ameriketako euskal kolonietan euskal abertzaletasuna zabaltzeko prozesuan apaiz hauen partaidetza ezinbestekoa izan zen. Bestetik, Gerla Zibilaren ostean beste milaka euskaldunek ere Ameriketara joan behar izan zuten, jadanik hango lurretan zeuden apaiz abertzale hauen eragin guztiek exiliatu hauek laguntzeko balio izan zuten.

When Basque patriotism was spreaded within the Basque Catholic Church, the hierarchy (which was very close to the Spanish patriotism) appeared very hard against these priests. Because of that, some of these Basque patriotic priests had to emigrate to America, as it was quite usual since the Carlist Wars. In the first decade of the XXth century, self-exiles were isolated; then, the attacks against patriotic priests were growing and becoming more dangerous, so the emigration movement became harder; it was with the Civil War when this movement got the top.

The influence of this current is double. On the one hand, the participation of these Basque patriotic priests in the process of expanding the Basque patriotism within Basque colonies in there, was essential. On the other hand, many people also had to go to America after the Civil War, and all the priests mentioned before, who already lived in those lands, were very helpful and very useful for all these emigrants.

## Eliza katolikoa Euskal Herrian

Eliza Katolikoak Euskal Herriko bizitzaren atal guztietan izan duen garrantzia aipatzeko beharrik ez dago. Izan ere oraintsu arte, bai Espainiako esparruan eta bai Frantziakoan ere, Euskal Herria beti nabarmendu da bere katolikotasunaren indarra dela eta. Oraindik ere, estatu espainarraren barnean, bokazio erlijioso gehien eman duen eskualdea Nafarroa dugu<sup>1</sup>; eta urtean zehar Elizak antolatzen dituen diru-bilketetan (misioen eguna, apaizgaietzako eguna, Caritas eguna etab.) Nafarroa gaurdaino lehen postuan mantendu da.

Elizaren presentzia honen garrantzia, beraz, erraz islada daiteke Euskal Herriko bizitza historikoaren atal guztietan; eta, gure ikerketa mugatzen duten azken bi mendeotan, batez ere bi ezaugarri edo adierazpide nagusitan ikus dezakegu:

1.- Alde batetik, Euskal Herriak eman duen bokazio-kopuru zabal-zabalean. Nafarroari (eta berriro ere Nafarroa aipatu behar, Euskal Herrian gai honetan beti aitzindaritzari atxikirik egon delako) noizean behin «Elizaren bihitegia» izena eman zaio. Datuei begiratu baino ez da beste ezer egin behar. Adibidez, 1961ean Espainiatik kanpo bizi ziren erlijioso espainiarrak zenbatu zituen errolda baten arabera, probintziaz probintziako ranking-ean, Hego Euskal Herriko lau lurraldeak lehendabiziko zortzien artean

aurkitzen ditugu (ik. 1. taula).

1. taula: 1961-I-1ean Espainiatik kanpo zeuden erlijioso eta apaizak<sup>2</sup>

Postua	Probintzia	Kopurua
1.a	NAFARROA	3.775
2.a	Burgos	2.253
3.a	GIPUZKOA	1.707
5.a	BIZKAIA	1.334
8.a	ARABA	905

2.- Bestetik, historia garaikidean Euskal Herriko bilakaera politikoan erlijioaren auziak eta elizgizonek hartu duten parte kontutan hartu behar dugu. García de Cortázarrek (1988: 60) dioenez, «apaizak sakristiara» lemapeko liberalen nahia, Euskal Herrian inon baino gutxiago bete zen, esamolde huts bihurturik geratuta. Eliza gizartean leku publiko eta maila goreneko baten bila ibili zen etengabe, bai eta lortu ere. Elizak, benetako boterea zuen euskal gizartean; eta ez zen botere hau eragin ideologiko soilean geratu. Are gehiago: botere zibilarekiko harreman eta lotura hain estuak zituen, non Euskal Herriko gizartearen gidaritzan Elizaren esanetatik urruntzerik ez baitzegoen. Berriro ere García de Cortázarren hitzak hartuz, «Aro Garaikideko euskal Elizari leku guztietatik politika dario. Politika onartua zein ez onartua, baina beti politika»<sup>3</sup>.

1 Cfr. Marcellán 1986, adibidez, Francoren garaiko urteetarako ikerketa.

2 Cfr. Consejo Superior de Misiones 1961: 418. Iturri honek ematen dituen datuak erabat zuzenak ez badira ere, nahikoa adierazgarritzat har ditzakegu.

3 García de Cortázar 1988: 61. Nahiz eta zenbait gauzatan ez gatozen Cortázarrekin bat (batez ere, berarentzat Euskal Herria zer den), honetan behintzat ados-ados gaude.

## 1. Eliza katolikoa eta politika Euskal Herrian

Horrexegatik, beraz, euskal gizarteak bizi dituen mugimendu eta aldaketa politiko guztiek eragin bikoitza sortarazi dute Hego Euskal Herriko Elizan.

Alde batetik Elizaren barnean ere mugimendu eta aldaketa hauek ia automatikoki isladatu dira, Eliza ez baita mundutik aparte kokaturik dagoen izaki perfektua, sustraiak lurtean erroturik baititu: munduan antzezten baitu bere papera, eta munduan hornitzen baita behar duen jendeaz.

Eta bestetik, auzi politiko guztie-tan, lehendabiziko Karlistadatik Franco-ren garaierarte, Eliza bera auzigaietako bat izan da. Onerako ala txarrerako, kontra ala alde, plazara-tzen zenean, edozein ideologiak Elizarekiko eta Elizaren nagusigo politiko eta sozialarekiko bere jarrera azaltzen zuen, salbuespenik gabe.

Arazo politikoen aurrean euskal apaizeriaren barnetik aterako zen erantzuna ere bikoitza izango zen. Elizaren ahotsa ez zen bakarra, ezta batua ere izango. Askok laburbilduz eta bakunduz, etenduraren bi aldeetan, aurrez aurre, «apaiz xumeak» eta

«hierarkiak» zeudela esan daiteke. Etendura hau bi mendeetan zehar nabari dezakegu; XIX.ean ahulagorik edo ezkutuagorik, begi-bistan XX.ean.

Gainera, ahots edo iritzi desberdin horien artean, gehiengoak (edo, behintzat, gutxiengo ez hain txiki batek) indarrean zegoen botere politikoarenak ez ziren aburuak defendatu dituela azpimarratzekoa da. XIX. mendean, liberalismoaren aurka (karlismoa, eta orohar tradizionalismoa); XX. mendean, euskal abertzaletasunaren alde<sup>4</sup>.

Hau guztia dela eta, apaizek (berezi oinarrizko euskal apaizek), iritzi hauek defendatzeagatik erasoak jasango ditu.

1.- XIX. mendean erasook botere politikotik etorri zitzaizkien. Elizaren barnean, behintzat oinarrizko iritziaren esparruan, nolabaiteko batasuna ba omen zegoen, nahiz eta praktikan goiko hierarkiek botere politikoarekin harreman on eta zibilizatuak mantentzeko taktika erabiltzen zuten.

Esaterako, gerrate karlistetan apaiz xume asko<sup>5</sup> buru-belarri sartu ziren karlismoaren alde, Fidel de Sagarninagak salatzen zuen bezala<sup>6</sup>. Hierarkiek, aldiz, bestelako jokaera hartu

---

4. Berrito ere azaldu behar dugu, deskribatu dugun egoera hau guztiz bakundurik aurkeztu dugula. Bai XIX. mendean eta baita XX.ean ere, ez karlistak ezta abertzaleak ez ziren euskal apaiz asko eta asko bazeudela ezin da inola ere ukatu. Baina oro har, aipatu dugun etendura bazegoela ere argi-argi dago; agian, alde bateko zein besteko partaideen deskribapena zehaztuz, hauxe esan beharko genuke: alde batean, hierarkiarekin bat etorri eta hierarkiaren oniritzia zeukaten apaizak gehi hierarkia bera zeudela, eta beste aldean, hierarkiaren onespenerik ez zeukaten apaizak.

5. Cárcel Ortí-k (1970) dioen bezala, nahiz eta apaizeria espainiarrak, orokorrean hartuta, zuhur jokatu zuen eta, beraz, ez zen aho batez politikan sartu, apaiz karlisten artean «talde nagusia euskal probintzietakoa zen».

6. «Los curas y las Mugerres: he aquí, pues, la personificación del carlismo vascongado. Sin la predicación político-religiosa de los unos (...) ni los generales carlistas llegaron á acaudillar soldados, ni los flamantes corregidores á vestir la toga, ni los ambiciosos de profesión á encumbrar personas», Sagarninaga 1875 (García de Cortázar-Montero 1980: 123-tik hartuta).

zuten, haien menpeko apaizak bezain karlistak baziren ere. Bai apaizgo sekularrean bai erregularrean ere, goiko karguengan zuhurtasuna beste portaera guztien gainera nagusitu zen<sup>7</sup>:

Egitan, apezpikuek haien apaizek beste higuindura sentitzen zuten liberalismoaren hastapenen aurrean, baina mitra edukitzearekin konpontzaletasuna eta paktuetarako joera pizten zitzaizkien (García de Cortázar 1988: 63).

2.- XX. mendean, haatik, erdi-batasun hau apurtu egiten da. Oso goizeatik, plazaratzen diren unetik bertatik, Sabino Aranaren teoriak eta planteamendu politikoak erantzun gero eta indartsuagoa jasoko zuten euskal apaizen sektore zabaletan.

Belaunaldien arteko aldaketa batean, apaiz eta apaizgai gazteak ditugu, batez ere, euskal abertzaletasun jaioberriari atxikitzen zaizkionak. Hor dugu, besteak beste, Evangelista de Ibero<sup>8</sup> kaputxino nafarraren garrantzia euskal abertzaletasunaren lehendabiziko une haietan: eredu eliztarrei jarraituz, abertzaletasunaren benetako katixima edo dotrina bat idatziko du (*Ami Vasco*, euskarazko itzulpenean *Euzko Ami*), ideologia politiko honen herri-zabalkundearen erabiltzeko.

---

7. Jesuiten artean, adibidez: «Espainian jesuitak Don Carlosen aldeko zaletasuna ezkatzen saiaten ziren; baina atzerrian haien eritzi karlista oztoporik gabe azaltzen zuten, batez ere Poyanne-ko etxean, bertan euskaldun ugari zegoelako» (Revuelta 1984: 369).

8. Ramon Goikoetxea Orozikak, Nafarroako Ibero herrian jaiokak, kaputxinoen ordenean sartu zenean bataio-izena aldatu eta Evangelista de Ibero hartu zuen. Urtetan, kaputxinoen Lekarotz-eko ikastetxean eta Lizarrako eskola «serafiko»an irakatsi zuen. Bere abertzaletasuna zela eta, kaputxinoen goiko arduradunek Euskal Herritik kanporatzea erabaki zuten, eta baita berehala egin ere. Hija-era (Aragoe) bidalia, bertan gazte hil zen, 1908 urtean. Cfr. Martínez-Peñuela 1989. (Iberok 1902an Iruñeko katedralean eman zuen hitzaldia dakar).

9. Iruñean Gasteizen baino gehiago. Gasteizko elizbarrutia sortu zenetik (XIX. mendeko erdialdean) Errepublikara garaietara arte, nafar eta gipuzkoar banarekin baino ez zen aulki hau bete. Aldi berean, euskal apezpiku asko Espainiako beste gotzaitegi askotan aurkitzen ziren.

Askotan, elizgizonen portaera hau azaltzeko nahian, zio erlijiosoak baino ez dira aipatzen, apaizek soilik abertzaletasun arantarraren osagarri ultrakatolikoari begiratzen ziotela suposatuz. Egia da, bai, Aranaren ideologian katolikotasuna euskaltasunaren ezinbesteko zatia dela («gu Euzkadirentzat, eta Euzkadi Jaungoikoarentzat»), baina horrekin batera zenbait atal «irenskaitz» bazuen, Estatu agintariekin aliantza hurbilean zeuden Eliza espainiarreko zuzendarientzat. Abertzaletasunak Estatuaren oinarri lejitimatzailea (herri espainiarren batasuna) kolokan jartzen zuen, euskal naziotasuna aldarrikatzen zuelako.

Hau guztia dela eta, erasoak handik aurrera eliz agintariekin berek gidatuko dituzte, botere politikoarekin erabateko adostasunean eta lotura zuzenengan. Batez ere, hierarkien jokaera hau apaiz sekularren kasuan ondo ikusten da. Izan ere, oso gutxi izan baitziren, urte haietan, Iruñeko zein Gasteizko gotzaitzegietatik pasatu ziren apezpiku euskaldunak<sup>9</sup>; horrez gain, Espainiak eta Vatikanok sinaturiko Konkordatoaren arabera, apezpikuak gobernuak aurkezten zituen. Eliza administrazio publikoaren beste atal bat balitz bezala, apezpikuek, erlijioaren gaiez arduratzeaz gain, sistema politikoaren egonkortasuna eta aberri espainiarra-

ren batasuna defendatzeko ardura hartua zuten beren gain. Hor sartzen da, adibidez, 1913an Madrilgo nuntzio apostolikoak Euskal Herriko eta Kataluniako agintari eliztarrei bidali zien agindua, Gasteizko *Boletín Diocesano*-k (1923-11-21) hartu zuena:

Arreta osoz jagon zenbait erlijioso euskaldunen *bizkaitarrismoa*. Hauek, haien jarrera separatista dela eta, Ordenaren izpiritua galtzeaz gain, Gobernuaren eta Nazioaren gorrotoa bereganatzen dute. *Katalanismoa* ere jagon behar da, nahiz eta azken hau ez den bestea bezain zuhurgabea eta ez-moderatua.

Horrelako gomendioak apaiz erregularren artean ere zabaldu eta noizean behin praktikan jartzen ziren,aldi bakoitzean zegokion ordenaren agintariek burututako garbiketetan; adibidez, Evangelista de Iberori gertatu zitzaiona, edo gero ikusiko dugun kaputxino abertzaleen aurkako erasoaldia, 1915ean.

## 2. Amerika: uneoroko babeslekua

Hau guztia dela eta, hasiera-hasieratik, abertzaletasunaren "hatzaparretan" eroritako zenbait apaiz euskaldunek atzerrirako bidea hartuko dute, beren ideia politikoetatik ihes eginik.

## 2.a. Atzetik zetorren joera

Euskal apaizen oroimen kolektiboarentzat, Amerika babeslekutzat hartzeko joera ia-ia ohitura bihurturik zegoen, XX. mendeko lehendabiziko urte haietan. Eta ideia hau ez zegoen apaizen artean bakarrik barreriatu<sup>10</sup>. XIX. mendean zehar, Eliza eta Estatuaren arteko arazo politikoak zirela medio, elizgizon askok eta askok atzerriratu nahiago izan zuten, zuhertasunak, beldurrak ala beharrak bultzatuta.

Batez ere bi gerrate karlisten ostean benetako erbesteratze masiboak bizi izan zituen Hego Euskal Herriko Elizak. Bi gerrateotan, apaiz-sektore handiek karlistekiko adostasuna nabarmenegi erakutsi zuten<sup>11</sup>; behin gerra galduz gero, hauetariko askok alde egitea erabakiko zuten.

1840an, gainera, Espainian apaiz erregularrak esklaustratzeko agindua ezartzen du gobernuak; bere bitzta erlijiosoari eutsi nahi zionak ere, bide berberera jo behar zuen. 1842 eta 1843ean, Espainiatik kanpo dagoen pertsonal hau aprobetxatuz, Hegoamerikako zenbait lekutan, ordurako erdi hilik zeuden misio katolikoak berpizten hasten dira: Venezuelan<sup>12</sup>, Perun (Sáiz 1972: 131), Ekuadorren, Bolivian eta Txilen, batik bat.

10. «(...) el Nuevo Mundo contribuyó desde siempre a aliviar cualquier conflicto socio-político que tenía lugar en las provincias vascas, en la medida que recogió a los descontentos o perseguidos. En efecto, América se ha caracterizado siempre por ser una solución para problemas de índole político o económico», Azcona 1989: 753.

11. Antonio Pirala-k (1984: 511), adibidez, lehendabiziko gerrateaz hitz egiten duenean, honako hau diosku: Karlos V.ak bazuela «(...) en su apoyo grandes masas del pueblo y muchos partidarios en el clero». Bigarren gerratearen garaian, egoera berdina izango zen.

12. Venezuelan, adibidez, oso ezaguna da Esteban de Adoain aita kaputxino nafarra, 1842an bertoko oihaneko misioetara hurbildu ziren 80 kaputxino euskaldun eta kataluniarren buru zena. Cfr. *Revista Católica*, Bartzelona (1842), 247-251. orr.

Zaila da esaten zenbat euskal apaiz sartu ziren korrante honetan; erraza-goa dugu, aldiz, bigarren gerratearen osteko erbesteratzea zenbatzea. Hasteko, aurrekoa baino askoz gehiago izan ziren<sup>13</sup>; gainera, koalitatiboki, desberdintasunak ere baziren. Oraingo honetan, Ameriketarako euskal emigrazioaren ohizko kanaletatik abiatuz, apaizgo sekular asko ere atzerriratu ziren, batez ere Argentina eta Uruguayrantz. XIX. mendeko azken hamarkadetan, Uruguay, Buenos Aires eta Entre Ríos-eko herri eta herrirka askotan, euskal apaiz karlistaren figura nahikoa ezaguna izango da (Cambaceres 1885):

La campana, rajada, con voz de vieja llamaba a misa. // Adentro, el cura, un vizcaíno carlista cuadrado de cuerpo y de cabeza, hombre de pelo en pecho y cuchillo en la liga, se disponía a officiar pomposamente en el altar, objeto de la fiesta.

## **2.b.1899-1910: abertzaleen lehen erbesteratzeak**

Aitzindaritzza honek urratutako bideak irekirik zeuzkatenez gero, abertzaletasunaren hastapenekin ados agertu ziren lehen apaizek lehendabiziko unetik hartu zituzten, politika dela medio haien nagusi hierarkikoekin arazorik pizten bazitzaien.

XIX. mendea bukatzeaz zegoela, Gasteizko apaizgaitegian ideologia abertzaleko ikasleak agertzen hasten dira. Hasieran oso gutxi direla susmatzen dugu, zenbatzerik ez badaukagu

ere. 1900eko abuztuan lehen kasua agertzen zaigu. Prokuradore baten bitartez, Bizkaiko Etxebarria herriko akolito gazte batek, Montevideo-ko artzapezpikuaren onespena eskatzen du, Uruguayn apaizgai-ikasketak bukatu eta bertan apaiz ordenatu ahal izateko<sup>14</sup>.

Bere izena *Frantzisko Alzibar-Aritxuluaga* da, baina Euskal Herrian bere goitizenaz ezagunagoa da: «Markiñako Extudiantie», pelotari bikaina, «inoiz izan dan pelotari aundienetarikoa» (Txorierri 1955: 1). Zenbait iturritan, Montevideo-razteko zioak azaltzerakoan, Alzibarren pilotazaletasuna aipatzen da (Ibidem):

Aldi labur bat baño geiago ez eban egin pelotaritzan, ze bere Gotzain Jaunak (Obispuak) eragotzi eutson bizipide pelotariekin agirian jokatzia.

Baina esamolde honen azpian zerbait gehiago bazegoela pentsatze-ko nahikoa arrazoi badugu. Izan ere, apaiz izan eta berehala, Argentinako Rosario hirira zuzenduko ditu bere pausuak, bertan senideak ba omen zituelako; eta laister beste euskaldun abertzale batzuekin (apaizekin zein laikoekin) elkartuko da, 1912 urtean Rosarioko «Zazpirak Bat» euskal etxea sortzeko: Argentina osoan abertzaleek fundatu zuten lehenengo euskal etxea (cf. Alvarez 1992). 1955ean Rosarion hil zen arte, ezagutu zutenen hitzetan, «euskotar eta euskaldun zintzoa» (Txorierri 1995), eta batez ere «abertzale miragarria» (Zazpirak bat 1953) izan zen.

13. Euskal apaiz erregularretatik laurogeiren bat kasu identifikatu ahal izan ditugu orain arte. Ikus gure *Misiones y misioneros vascos en América (1820-1960)*, Bilbo, Fundación Banco Bilbao Vizcaya, moldiztegia.

14. *Montevideo-ko Artzapezpikutegiaren Artxiboa* (aurrerantzean *MvAA*), Personal, A-1, ALCIBAR-ARICHULUAGA karpeta, Félix Orella-k Montevideo-ko artzapezpikuari, Gasteiz: 1900-VII-16.

Altzibarrena, hala ere, ez zen kasu bakarra izan. Mendearen lehen hamarkada horretan, pixkanaka-pixkanaka, beste apaizgai eta apaiz batzuek jarraituko diote. Dakizkigun gehienak, Gasteizko elizbarrutikoak ziren; Nafarroako apezpikutegian arazoa oraindik ez zen piztu. Argentina eta Uruguayko hiri eta herrietan barreiatzen dira apaiz atzerriratu hauek. Besteak beste, hor dugu *Nikasio Kortabarria Idiazaba*<sup>15</sup> oñatiarra (1906an Buenos Airesko «Laurak Bat» euskal etxearen egoitzan zegoen Gernikako arbolaren kimua bedeinkatu zuena), eta batez ere *Frantzisko Azpiri Mendiguren* mendexatarra, agian Argentinako euskal koloniak mende-hasiera honetan ezagutu zuen abertzalerik sutsuen eta eraginkorrena.

Azken apaiz hau gertuagotik ikustea benetan merezi du. Apaiz ordenatu eta hiru urtera, 1900eko uztailaren 23an, Gasteizko apezpikuak Buenos Airesera joateko baimena ematen dio<sup>16</sup>. Laster asko, Buenos Airestik Argentinako Santa Fe-ko diozesira helduko da, handik gutxira bertoko apaizgaitegiaren zuzendari izendatua izango zelarik. Aurrekoengan susmoa baino ez zena, Azpirirengan ziurtasuna da: benetako exiliatua dugu. Américo A. Tonda-k (Azpiri gertutik ezagutu zuen)

Santa Fe-ko apaizgaitegiaren historia idazterakoan, horrela baiezten digu: «sus ideas nacionalistas le habían puesto en la trocha que conduce al exilio»<sup>17</sup>.

Denborarik ere ez du galtzen Argentinako euskal kolektibitatearekin harremanetan hasteko. Buenos Airesen argitaratzen zen *La Baskonia* euskal hamartekariaren zuzendaria-rekin adiskidetasuna piztu<sup>18</sup> eta, hil arte Azpirik noizean behin artikulua eta artikuluxkak publikatuko zituen aldizkari honetan<sup>19</sup>. Urte haietan, *La Baskonia*-ren espainoltasun politikoak oraindik euskal abertzaleen partaide-tza onartzen eta estimatzen zuen. Azpiriren artikuluek eta hitzek ez dute inoiz ezkutatuko apaiz honen ideologia erabat sabindarra. Esaterako, 1908 urtean, beste apaiz euskaldun, abertzale eta adiskide bat Europara zihola jakinik, abertzaletasunez beteriko gutuntxo bat bidaliko dio eta, aldi berean, *La Baskonia*-n argitaraturik agertzea ere lortuko du:

Euskal errira ibiltalde bat egiteko asmoa dezula dirautazu, eta ezerchu arako etedaukadan iteneustazu. ¡Au garai ona ango euskeldun epelai gure abertzale zintzoa azalduteko eta Aberri maite, neke eta nai gabez beteari, laztan gozo bat emateko!.

15. 1914an Euskal Herrira betiko itzuli zen. Abertzale zenentz erabakitzea zaila da, baina Argentinara heldu zenetik, euskal kolonia abertzaleekin harremanetan egon zen eta, hauengandik hurbil zegoelakoan gaude. Cfr. *La Plata-ko Artzapezpikutegiaren Artxibua* (Argentina; aurrerantzean LPAA); "Libro de títulos", 1 (1898-1940). Gasteizko gotzaitegiaren artxibuan ere dokumentazioa du.

16. *Gasteizko Apezpikutegiaren Artxibua* (aurrerantzean, GaAA), "expedientes de sacerdotes", 3717. Mendexan 1873-IX-14ean jaioa.

17. Tonda 1957: 184. Bide batez, Azpiriren deskribapen hau eransten digu: «Los que le vieron ese día, le describen como un hombre alto, de fornida contextura, coronada por una cabeza relativamente pequeña, de tez blanca, cabellera negra y diezmada. Había nacido en el país vasco, cuya reciedumbre física y moral le rondaba por los glóbulos de la sangre».

18. Jose Ramon de Uriarte *La Baskonia*-ren zuzendaria, askotan, «nuestro amigo»-z mintzatzen da. Esaterako, «Notas locales», *La Baskonia*, XVIII, 614 (20-X-1910), 32. or.

19. Denak, hala ere, ezizenekin. Bere sinadura duen artikulua bakarra, hil eta gero publikatu zuena da (cfr. *infra*).

Biotzeko zañetan, maitetasunezko tolos tartean daukat usain gozoko lora eder bat gorderik, zein guradoten nik Aberriari eskeini. Ara emen lora eder ori: ¡Gora Euzkadil.

Eramaizu neure biotzeko Ama laztan-laztanari.

Agur.

Azpiri'tar Pachi<sup>20</sup>.

Azpiri, horrez gain, Argentinako Elizaren barruko hierarkian gora ere hasiko da berehala. Santa Fe-ko apaizgaitegiaren zuzendaritzatik, 1911an Corrientes hirira pasatuko da: bertoko apezpiku berriak, Niella abizenekoak, bere bikario nagusi izendatzen baitu<sup>21</sup>. Bide batez, aldizkari katoliko baten erredakzio buru jartzen du. Bitartean, ez ditu bere kontaktuak galduko euskaldunekin, batez ere Rosario hirian indartsu osatu den euskal apaiz eta abertzaleen talde eraginkorrenekin, hango «Zazpirak Bat» euskal etxearen inguruan bildu direnak.

1920ko abuztuan, Frantzisko Azpirik Europarako untzia hartzen du. Haste-ko, Erromara doa, Corrientes-eko apezpikuaren izenean *visita ad limina* delakoa burutzeko. Untziratzean, bere ideologia ageri-agerian uzten duen gertaera baten protagonista bilakatzen da: nazionalitatea eskatzen diotenean, euskalduna dela dio: «vasco». «¿Vasco-francés?», «Vasco» erantzuten du. «¿Vasco-español, acaso?», eta berriro Azpirik: «¡Vasco!». «¿Pero, vasco

qué?», itaunduko dio azkenean aduanetako funtzionariak. «Ponga vasco-chino», izango da hirugarren eta azken erantzuna, eta hala geratu omen zen dokumentazioan idatzirik<sup>22</sup>.

Italiatik, itzulian, Euskal Herrira doa, senideak bisitatzera eta, bide batez, bere abertzaletasunaren iturrietan edatera. Mendexatik Sukarrietara hurbilduko da, Sabino Aranaren hilobiaren gainean otoitz egitera. Artikulu luze bat prestatzen du *La Baskonia*-rentzat, argazkiak eta lortu ditu, eta postaz bidaltzen du. Artikulu hau bai, baina bera ez da Argentinara helduko, Amerikara zeraman untzia 1921ko urtarrean Galiziako kostaldearen aurrean hondoratu baitzen<sup>23</sup>.

Frantzisko Azpiriren lagun minen artean, lehenago aipatu dugun beste apaiz euskaldun eta abertzale bat nabarmendu behar dugu. *Andres A. Olaizola Etxebarria*, Azkoitian 1877an jaioa, oraindik apaizgai gaztea zelarik (Gasteizen filosofiako hiru ikasturteak baino ez zituen bukatuta) Argentinara emigratu zen. Santa Fe probintziaren hiriburuko apaizgaitegian, Andresek ikasketak amaitu eta apaiz ordenatu zen, 1900 urtean.

Altzibarrekin gertatzen den bezala, ez daukagu ziurtasun osoa Olaizola erbesteratu politikoen artean sartu ahal izateko. Hala ere, haren abertzaletasuna ezin daiteke zalantzan jarri, bere bizitza guztian zehar, haren

20. «Notas locales», *La Baskonia*, XV, 523 (10-IV-1908), 313. or. Gutuna Andres A. Olaizola apaizari zuzendurik dago.

21. Bikario nagusia apezpikuak laguntzaile zuzentzat hartzen duen apaiz bat da. Kasu askotan apezpiku-ordea dela esan daiteke.

22. Gasteiztarra 1941: 77. Gertaera hau, Argentinako euskal koloniaren oroimen kolektiboan gaurdaino gorderik geratu da; izena, hala ere, ez du ia inork gogoratzen (izan ere, Gasteiztarrak Andres Olaizola apaizari leporatzen dio, artikulu honetan), eta batzuetan, txinatarraren orde z japoniarra zela esan zuela aipatu ohi da (*Gasteiztarra* Bernardo de Bianaren ezizena da).

23. «El naufragio del Santa Isabel», *La Baskonia*, XXVIII, 985 (10-II-1921), 202 or.



ideiak erakusteko anitz parada izan baitzuen<sup>24</sup>:

alma patriótica que se entregaba por entero y sin reservas a la labor de difusión de ideales [hots, euskal abertzaletasuna] cuya incomprensión podían levantar muchas resistencias y no pocos sinsabores<sup>25</sup>.

Oso gazte, Santa Fe-ko apezpikuak bere idazkari pribatua izateko aukeratzten du Andres Olaizola. Urte luzetan konfidantza handiko kargu hau beteko du, aurrerantzean gorantz egingo duen karrera baten hasieran. Rosario 1912 urtean «Zazpirak Bat» euskal etxe jaioberria Iñaki Deunaren lehen euskal jaiak ospatzera prestatzen denean, arduradunek berehala parte hartzeko eskakizuna luzatzen diote, oraindik pertsonalki ezagutzen ez zuten apezpikuaren idazkariari. 1912ko ekain eta uztailean zehar, hamar euskaldun bildu dira, euskal jaiak antolatzeko eta euskal etxea eratzeko komisio bat osatu asmoz. Haietariko sei abertzale karnetdunak dira, gehienak arabarrak (Bernardo Ustaran, Benito Urrutia, Jose Maria Beitia, Bernardo de Biana<sup>26</sup>...), 1911ean Rosario bertan Euzko Alderdi Jeltzalearen ordezkaritza bat fundatu zutenak: *Comité Nacionalista Vasco* delakoa. Beste lauak, Rosario inguruan bizi ziren

euskal apaizak dira: bi gipuzkoar (Juan Jose Kortazar eta Manuel Aizpuru), bizkaitar bat (lehen aipatu dugun Altzibar-Aritxuluaga) eta nafar bat (Dionisio Santisteban).

Onartu eta, lehenengo Iñaki Deunaren mezan, Olaizola izango da, hala ere, hitzaldi nagusia bere gain hartuko duena: santuaren gorai-pamen edo panegirikoa<sup>27</sup>. Hitzaldi bero batean, euskal santuaren aipamenetik hasi eta, euskal «abenda»ren birtuteak eta euskal «aberria» bera defendatzera iritsi zen, antolatzaileak pozaren pozez utzirik. Gainera 1912an bertan, Kantauri itsasoan euskal arrantzaleek jasan zuten ekaitza zela eta, Argentinan diru-bilketak eratzen direnean, Santa Fe-ko bilketa egiteko eskatzen diote Rosarioko euskaldunek Olaizolari:

Alguien me reprochó por haber molestado a una persona a quien apenas conocíamos y que ya había hecho bastante con no habernos cobrado ni los gastos de traslado para venir a predicar a los vascos.

Me quedé con el reproche, pero seguí aferrado a la confianza que el P. Olaizola había despertado en mí desde el primer momento. Un sacerdote dentro de un vasco no podía fallar... y no falló.

Pocos días después recibí la lista de suscripción con los nombres de

---

24. Horrela dugu, adibidez, hil baino egun batzuk lehenago Buenos Aires-eko *Euzko Deya* euskal aldizkari abertzaleko zuzendariei bidali zien gutuna, euskal kaputxinoek Córdoba-ko mendialdean zeukaten etxean oporretan zegoenean: «Enero 23 / 40. Discípulos del Padre Evangelista de Ibero, viven bajo estos nogales centenarios, añorando a Navarra. Corresponde el saludo de primero de año desde estas rientes tierras, con afecto para todos los señores de esa querida entidad. Su afectísimo amigo A. de Olaizola». Cfr. «Ha fallecido Monseñor Olaizola», *Euzko Deya*, Buenos Aires, 1940-II-10, 6. orr.

25. Gasteiztarra, «1940. Monseñor Andrés A. de Olaizola. 1942. Ante el segundo aniversario de su partida. Recuerdo de otros tiempos», *Euzko Deya*, Buenos Aires, 1942-II-10.

26. Euskal Herrian, Argentinaratut baino lehen, Araba Buru Batzarreko partaidea izan zen. Cfr. F.E.V.A. *Euzko Argentinarrak Bazkun Alkartasuna*, 1984: 154.

27. Gasteiztarra, «El primer San Ignacio en Rosario. Recuerdos del año 1912», *Euzko Deya*, Buenos Aires, 1942-VII-31, 6-7 orr.

unos treinta contribuyentes y un giro por el importe recaudado. Por indicación del P. Olaizola la lista había sido autorizada a un señor Emilio Aguirre, y los nombres que en ella aparecen y tengo a la vista, dice a las claras del alto concepto que del mismo P. Olaizola y de sus colaboradores se tenía en la Capital de la Provincia: el Dr. Manuel J. Menchaca (gobernador de la Provincia) abre la lista y siguen, entre otros apellidos, los de Novoa, Chotil, Bidachea, Mendía, Garategui, Iribarren, Eguiazú, etc<sup>28</sup>.

Honelaxe, hurrengo urteetan Olaizolaren eta Rosarioko euskal etxeko arduradunen arteko harremanak gero eta estuagoak izango dira. 1910.eko hamarkadaren bigarren zatian, «Zazpirak Bat» euskal etxetik abertzaleak alboratuak izan zirenean, Olaizola berehala azken hauekin elkartzeko da. Abertzaleek erakunde berri bati hasiera eman zioten: *Euzko Batzokija*-ri, eta Olaizolak izango du, zenbait urtetan, erakunde honek antolatutako euskal jaietan meza emateko ardura. 1914ean, gainera, Rosarioko elkarte espainiarren erasoari aurre egin behar

izan zion: euskal jaien kutsu “separatista” zela eta, agintari zibil zein Elizakoei ospakizunak debeka zitzaizten exijitu zietenean, Olaizolak berak eman zuen jaiaren meza, panegirikoa egin eta bazkarian parte hartu<sup>29</sup>.

Urtero-urtero, Santa Fe-tik Rosario-ra etorriko da, Iñaki Deunaren jaiak direla eta, baita abertzaleek «Zazpirak Bat» en kontrola berreskuratzen dutenean ere. Azkenengoz, Santa Fe-ko apezpikuak Rosarioko bikario foraneo<sup>30</sup> izendatuko du, bere bizitokia Rosarion ezarriz. 1940 urtean hil zen arte, Rosarioko euskal jai bakar batean ere ez da bere falta nabariko. Gerra Zibilaren garaian, gudarien aldeko defentsak egingo ditu, Argentinako beste elizgizon askoren aurka (Gasteiztarra 1941: 77): «Gu, denok Jaungoikoarekin baturik, euskal Aberria defendatzen dugu». Automobil-istripu batek, zuzenean apezpikua izatera eramaten zuen karrera moztu zion Olaizolari, 1940ko udaran<sup>31</sup>.

## 2.d. Hamarkada zaila (1911-1921)

Hala ere, mende-hasierako erbeste-

28. Gasteiztarra, «1940. Monseñor Andrés A. de Olaizola...», op. cit.

29. Hurrengo urtean, Olaizolaren eskuari esker, Santa Fe-ko apezpikuak bere onespina edo “nihil obstat”a eman zion, Rosarioko abertzaleek argitaratzen zuten *Aitor* aldizkariari. Cfr. *Revista Eclesiástica del Arzobispado de Buenos Aires*, XV (1915), 942 orr. (“Obispado de Santa Fe” atalean). Testua irakurtzeko, cf. Alvarez 1992: 114.

30. Santa Fe-ko elizbarrutia hain zen handia, ezen apezpikuak ondo gobernatzeko hainbat lurraldetan banatu behar baitzuen. Lurralde hauetariko bakoitzaren buru izateko, bikario edo apezpiku-orde bana aukeratzen zuen, lurralde horretako Elizaren gobernu arrunta bere esku izan zezan. Izendapen honekin batera Vatikanok Olaizolari “monseñor” titulua ere eman zion.

31. Hil eta berehala, Argentinako euskal kolektibitatearen erakunde guztiek agertu zuten haien dolumina, hala nola (*Euzko Deya*, Buenos Aires, 20-II-1940): «OLAIZOLA (Para Euzko Deya).

Ha muerto el primer vasco de Rosario  
y le llora recóndita la raza.  
Antorcha de gran luz noble emisario  
que a sus hermanos su virtud ensalza.

Vasco era noble y hasta su figura  
de señor bien nacido y arrogante  
decía de su raza la apostura.

Patriota de verdad, fué su idealio  
digno y cristiano, y en las almas traza  
prístino y eucarístico sagrario  
donde el perdón con el rencor se abraza.

Sacerdote ejemplar vivió en altura  
con la virtud segura acompañante  
¡Cargó fiel con su cruz sin amargura!

MIREN DE AOIZ. Sábado, 10 de febrero de 1940».

ratze isolatu hauei, laster erantsi zitzaizkien benetako garbiketak, batez ere hurrengo hamarkadan. Lehenago ikusi dugunez, Espainiako Elizako goi-karguek berek hartu zuten borroka edo garbiketa honen ardura nagusia, Estatuarekin eta Monarkiarekin zeukaten elkarbizitza-konponketa apurtzeko arriskuan jartzen baitzuen euskal abertzaletasunaren hedapenak Euskal Herriko apaizen artean.

Sanchez Erauskinek dioen bezala, borroka bi frontetan garatu zen: alde batetik, erabat monarkiazaleak ziren euskal apaiz asko apezpiku izendatu zituzten, eta Espainian zehar barreiatu, Euskal Herriko Elizaren fidagarritasun politikoa aldarrikatzeko asmoz<sup>32</sup>. Bestetik, Euskal Herriko aulkietarako euskaldunak ez ziren apezpikuak ekarri zituzten, balizko apezpiku euskaldun bat bere apaizekin bat etortzeko arriskua uxatzeko. Azken hauek agindua osorik betetzen saiatu ziren, batez ere abertzaletasunaren inguruko erakustaldiak eragozteko unean. Oso ezaguna da, adibidez, Leopoldo Eijo y Garay-k Montevideo-ko kaian protagonizatu zuen gertakizun latza, 1934 urtean Buenos Airesko Kongresu Eukaristikorantz zihoalarik. Zegoeneko Madrileko aulkian zegoen Gasteizko apezpiku ohi hau Uruguayra iritsiko zela jakinik, Montevideoko

hainbat euskaldun harrera egitera joan zitzaizkion kaira, eta bide batez peregrinazioan zetozen euskaldunak agurtzera. Baina Eijori ez zitzaion batere gustatu euskaldun hauek zeramaten euskal ikurrina: berehala untzitik jaitsi, eskuetatik kendu, apurtu eta guztien harriduraren aurrean ibaiaren uretara bota zuen<sup>33</sup>.

Garai hauetan, hala ere, planifikaturiko erasorik gogorrenak apaiz erregularren aurka eman ziren, Euskal Herriko hainbat ordenatan abertzaletasuna indar handiaz sartua baitzen. Batez ere, kaputxinoak dira gogorkien erasotuak; hauek bekatu bikoitza zuten: abertzaleak izateaz gain, nafarrak ziren gehienak. Gainera, lehendabiziko abertzaletasunaren propagandistarik sutsuenetako bat, Evangelista de Ibero, kaputxinoa zen: gazte hil bazen ere, bere hazia landatzeko denbora izan zuen, kaputxinoen heziketa-etxeetan irakasle zenean<sup>34</sup>. Bere eskuetatik pasatako belaunaldi batek testigantza hartuko du: Pio de Orikain<sup>35</sup>, Bernardino de Estella<sup>36</sup>, Miguel de Pamplona<sup>37</sup>, Dionisio de Echalar<sup>38</sup>, Eustaquio de Sesma<sup>39</sup>, Wenceslao de Lakuntza<sup>40</sup> eta Fernando de Soloeta-Dima<sup>41</sup>.

Erromako kaputxinoen jeneralak onartu zuen bezala, 1910 eta 1915

32 Sanchez Erauskin 1993. 1. zatia. Hau erredaktatzen ari garenean, oraindik ez ditu falta diren beste bi zatia argitaratu.

33. Gertaera leku anitzetan idatzirik dago. Besteak beste, ikus Astigarraga 1986: 24.

34. Bernardino de Estellaren abertzaletasuna azaltzeko, Andoni de Astigarragak (1986: 88) ondokoa diosku: «En 1903 ingresó en el Colegio Seráfico Capuchino de Lizarra, en cuyas aulas el R.P. Ibero «le comunicó el conocimiento de la patria».

35. Pedro Goikoetxea Goñi. Kaputxinoek ordenean sartzerakoan beren izena aldatzen zuten, eta deituratzat jaiolekua hartzen zuten.

36. Isaak Etxeberria Galdeano.

37. Jose Apeztegia Vicente.

38. Dionisio Ariztegi Iparragirre.

39. Castor Garraza Mangado.

40. Segundo Barber Pieltes.

41. Saturnino Soloeta Iturrondobeitia.

urteen artean, Euskal Herriko kaputxi-  
noen nagusiek

para poner a raya el movimiento  
bizkaitarista, que empezaba a mani-  
festarse entre sus súbditos, tenían  
que recurrir a medios extremos, como  
el de embarcar grupos enteros para la  
Argentina<sup>42</sup>.

Xehetasun gehiago emateko galde-  
tuta, izenak ere aipatzen ditu<sup>43</sup>: kanpo-  
ratu zuten lehena Evangelista de Ibero  
izan zela, baina indarrezko erabaki  
hau ez zela nahikoa izan. Beraz,  
Wenceslao de Lakuntza “nazionalista  
amorratua” zenak, nagusien aginduen  
kontra hautagai abertzale baten alde  
lan egiteagatik, zigorrak jasan zituen,  
eta azkenean, Argentinara bidalia izan  
zen. Handik gutxira aita Roman de  
Bera Guam-eko misioetarantz doa,  
publikoki abertzaletasuna aldarrikatu  
zuelako; arrazoi berberagatik, handik  
gutxira beste hiru kaputxinok ere  
Argenti-narako untzia hartu zuten:  
Ladislao de San Sebastian<sup>44</sup>, Pio de  
Orikain eta Eustaquio de Sesma.

1921 urtean ere, Nafarroako kapu-  
txinoen aurkako salaketak areagotu  
egin ziren. Oraingo honetan, gainera,  
salaketok nork eta Gaztelako kapu-  
txinoek egin zituzten: Nafarroako  
kaputxinoak abertzale separatisten  
kabia zirela, erlijioaren aitzakiarekin  
Euskal Herrian zehar ematen zituzten  
misioetan propaganda politikoa baino  
ez zutela egiten, etab.<sup>45</sup>.

Orduko hartan ez ziren kanporaketa  
masiboak errepikatu; hala ere, erbes-

teratzeen iturria, pixkanaka-pixkanaka  
ibiltzen bazen ere, ez zen inoiz erabat  
moztu. Apaiz sekular zein erregularre-  
tatik, noizean behin abertzaleren batek  
Ameriketarantzko bidaia egin behar  
izan zuen. Kasu isolatuak, adibidez  
*Jesus Montanchez del Cerro* sopuerta-  
tarra: 1913an Leopoldo Eijo y Garay  
apezpikuak ordenatuta, 1916an  
Montevideora lekuz aldatzen da,  
lehendabizikoz Uruguayan eta gero  
Argentinan lan eginez<sup>46</sup>.

Primo de Rivera-ren diktaduran,  
agian, kasuen kopurua handitu egin  
zen, batez ere apaiz sekularren  
artean. Iruñetik Tomas Yoldi Mina  
diktaduraren aurkako bere kazetaritza-  
lanek Uruguay-ra bota egiten dute.  
Oraindik apaizgaitegian zegoela,  
Yoldik *Napartarra* egunkariaren sorre-  
ran parte hartzen du 1911an. Handik  
hamar urtera, *La Voz de Navarra* ager-  
tzen denean, ale guztietan Yoldiren  
artikuluak agertzen dira: moral kristaua  
erabiliz, gobernuko agintarien portaera  
okerrak salatzen ditu. Iruñeko apezpi-  
kuak gehiago ez idaztera behartu, eta  
Erriberako parrokia batera bidaltzen  
du; ezer berririk idatzi ez, baina aspal-  
ditik idatzirik zeukana argitaratzen  
jarraitzen du. Gobernadore zibilaren  
presioek, azkenean, kanporatzea lortu  
zuten (Irujo 1968).

## 2.e. Gerra Zibila

Baina, zalantzarik gabe, euskal  
apaiz abertzaleek jasan zuten erbeste-  
ratzerik handien eta gogorrena, Gerra  
Zibilaren ostean burutu zena izan zen.

42. Melchor de Benissa O.F.M.Cap.-ek Marqués de Villasandina, Batikanon Espainiako  
enbaxadoreari: Erroma, 1922-I-9. Cfr. Elizondo 1989: 216.

43. Kaputxinoen kuria jeneralak Espainiako Estatuaren Ministroari, Erroma d/g. *Ibidem*, 22-222 or.

44. Juan Guillermo Arteaga Garaiar.

45. Gertaera honen deskribapena ikusteko, cf. Elizondo 1989.

46. Avellá Cháffer, Francisco; *Diccionario Biográfico del Clero de Buenos Aires*, III, pro manuscripto,  
47 or. GaAA, Expedientes de sacerdotes, 4776.

Euskal Herriko azken lur-zatia frankistek konkistatu baino lehen, separatistak omen ziren apaiz eta erlijiosoen aurka egindako salaketak fruitua ematen hasten dira.

Lehendabizikoz, harrigarria izan arren, Gasteizko apezpikuarengana zuzendu ziren erasoak: nahiz eta monarkiazale eta integrista izan, nahiz eta Errepublikara garaietan Espainiatik kanporatua izan, nahiz eta gerraren hasierako uneetan jeltzaleen portaera gogorki kondenatu, Erromara irten behar izan zuen, misioei buruzko kongresu batera omen.

Ikara apaiz euskaltzaleengana zabaltzeko bide ziurragorik ez zegoen: berehala, Euskal Herritik kanporaketak hasten dira, indarrez nahiz erabaki pertsonalez, agintari zibil zein Elizakoen agindupean, apaiz sekular zein erregularren artean (frantziskotarrak, kaputxinoak, jesuitak, klaretianoak, eskolapioak, batik bat) cf. Alvarez 1991. Nonbait erabaki hauei *obedientiae simulatae* izena eman zaie, ezin egokiago (Ansorena 1973): zuhurtasunez jantziriko erbesteratze politikoak baino ez zirelako:

Zuhurtasun-aurrikusle honek bulztaturik, inongo agintari zibil edo

militarrek gu behartu gabe, nire agintaldiaren lehendabiziko unetan –1937ko abuztuaren– Kuba eta Paraguay-ko misioetara zenbait erlijioso bidali genuen, azken urteotan zaletasun politiko nabarmenegiak erakutsi zituztelako<sup>47</sup>.

Gauza bera azalduko zuen, zenbait urteren buruan, Mateo Mujika Gasteizko apezpiku-ohiak, atzerrira ihes egin zuten bere apaizen portaera defendatu nahian (Mujika 1975: 104):

Gomá kardenalak apaiz hauei buruz *zuhurtasunez* ihes egin zutela idatzi zuen, eta, neuk Vatikanuari esan niona (...) gaur ere errepikatzen dut: apaiz hauek ez zutela ihesik egin haien buruak erruduntzat jotzen zituztelako, baizik eta errugabe asko gogorki zigortu zutela ikusi zutelako, Francoren politikari atxeki ez zitzaizkion eta.

Zortziehunetik gora apaiz sekularrek modu bateko zein besteko errepresioa jasan behar izan zuten. Atzerrira joan zirenen kopurua, gainera, ordurarteko erbesteratzerik gogorrena izan zen<sup>48</sup> (ik. 2. taula). Batzuk zuzenean, beste batzuk Europan eskala bat eginez, hauetariko erdiak baino gehiagok Ameriketarako bidea hartuko du azkenean, batez ere

---

47. *Frantziskotarren Kantabria Probintziako Artxiboa (Donostia)*, VII-3-2, Kantabriako nagusi probintzialak Espainiako nuntzioari, Donostia, 1939-VI-23. "Zaletasun politikoak" zer ziren aipatzeko, erbesteratutako hauei baten kasua baino ez da aipatu behar: Basilio Gerrak gerra hasi baino lehen milaka artikulua idatzita zeuzkan, «en vasco y castellano en todas las revistas de nuestra provincia y en alguna que otra de cultura regional» (*Homenaje a la Seráfica Provincia...* 1932: 192) Requeté-ak Arantzazura heldu zirenean, atxilotu nahi izan zuten, baina une hartan Gerra Foruako komentuan zegoen eta, ezin izan zuten. Arriskua zela eta, nagusiek Kubara bidaltzea erabaki zuten, frankistek Bizkaia hartu baino lehen.

48. Kontutan hartu behar da, datuetan ezkutapenak ere badirela. Adibidez, Nafarroako kasua gertutik aztertzen badugu, oso egoera korapilotsua nabaritzen dugu. Errepresioa eta bortizkeria jasan zuten ordenen artean, Ameriketara errefuxiatuko diren euskal erlijiosoen kopurua izugarri igoko da (batez ere, eta berriro, kaputxinoak, eta eskolapioak); aldi berean, errejimen politiko berriarekin adostasuna zuten beste askok etxerako bidea hartu zuten, zeren eta, Iruñeko apezpikuak eskatu zuen bezala, Nafarroan apaizak behar baitziren une haietan (Cfr. *Boletín Oficial del Obispado de Pamplona*, Iruñea, 1939-VII-1, 190 or.).

Europar gerratea pizten denean. Jesuita askori, Espainiako egoera politikoak 1931n hasitako exilioa berritzea dakarkie.

Erbesteratzealdi hau, gainera, gertakizun isolatu moduan geratu da, Ameriketaratutako ziren euskal erlijiosoen kopuruaren bilakaeran. Bai aurrean (Errepublikara garaietan) eta baita hurrengo urteetan ere (gutxi gora-behera 1949 urtera arte), bilakaerak 188tik zekarren goranzko martxa geldia egotzitu eta eten egin zen<sup>49</sup>.

**2. Taula:** Latinamerika osoan destinaturik zeuden euskal erlijiosoen kopurua, 1935tik 1940ra, probintzien arabera<sup>50</sup>.

Urtea	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Nafarroa	Guztira
1935	256	197	107	426	1.000
1940	273	228	103	425	1.061

### 3. Mugimendu hauek Ameriketako euskal kolonietan izan zuten eragina

Ordurarte ikertu dugun erbesteratze politikoak, Ameriketara, ia nazio guztietarantz zuzendu zen, Grande ibaitik Patagoniaraino. Apaiz erregularren artean, irtenbiderik arruntena honako hau zen: erlijioso hauek ordenak misioak zituen lekuetara bidaltzea.

Frantziskotarrak, adibidez, Kuba eta Paraguaira; jesuitak Venezuela eta Ertamerikara<sup>51</sup>; eskolapioak Txile, Brasil eta Venezuelara; etab.

Nazio hauetako zenbaitetan baziren euskal emigranteen kolonia handiak, batez ere *río de la Plata*-ko eskualdean (Argentina, Uruguay), Txilen, eta (1940az geroztik) Venezuelan. Toki hauetan, aspalditik euskal emigrante eta euskal apaizen arteko erlazioak finkaturik zeuden. 1852 urtean Montevideoa euskaraz meza eta misioak euskaldunentzat ematera lehen mixiolaria heldu zenetik<sup>52</sup>, historia luzea izan da.

Apaiak abertzale hauek ere, Ameriketako eskualde hauetara heltzen ziren beste edozein pertsona bezala (edo agian, are gehiago, haien ideologiak bultzatuta), aberrikideen laguntza eta adiskidetasunaren bila, bertan osaturik zeuden euskal koloniei laster atxiki zitzaizkien. Baina haien garrantzia ezin zitekeen edozein pertsonarena bezalakoak izan: Euskal Herrian betetzen zuten paperari edo ohiturari jarraituz, apaizek Ameriketako euskal kolonia haietako barne-eraketan partaidetza zuzena izango dute, nahita ala nahi gabe.

Alde batetik, erlijiosotasunak euskaldun emigranteen egoera izpiritualaren

49. Aurrerantzean ere zenbait euskal apaizek erbesteratzeak jasan behar izan zituzten, arazo politikoak zirela medio. Hala ere, kasuak berriro isolaturik eta tarteka agertuko dira; ez da berriro halako erasoaldi gogorrik gertatuko. Euskal apaizen eta agintari politikoen zenbait adibide (Amerika tartean zegoela) ikusteko, cfr. Alvarez 1993.

50. Ez ditugu zenbaketa honetan sartzen, jaioleku zehatza ezagutzen ez dugun erlijiosoak. Taularen iturria: Alvarez 1991: 93, 99.

51. Euskal jesuiten probintziek bi leku horietako komentu jesuitak pertsonalaz hornitzen zituzten. Ertamerikan inon baino hobekiago nabaritzen da erbesteratze honen azkartasuna eta neurria: 1936an Ertamerikara osoko etxe jesuitetan 17 jesuita euskaldun bizi baziren, hurrengo urtean, 1937an, zenbat eta 55 izango dira, guztiak zuzenean Europatik iritsita. Cfr. *Catalogus provinciae Castellanae Societatis Iesu ineunte a. MCMXXXVII*, Oña/Bilbo, 1936; eta *Catalogus... a. MCMXXXVIII*, Oña/Bilbo, 1937.

52. Dominique Sarrote, Ipar Euskal Herriko trapista, Estatu Batuetan destinaturik zegoela.

inguruko kezka sortarazten zien; hortik bazeukaten euskal emigranteengana jotzeko arrazoi bat. Ideia honetan oinarriturik, XIX. mendean euskaldunentzako ikastetxeak eta eraiki zituzten euskal apaizek berek (batik bat, Iparraldeko erlijioso betharramitek), eta Argentinan eta Uruguayn zehar euskal misioak antolatu, Euskal Herrian egiten zirenen antzera<sup>53</sup>.

XX. mendean, aldiz, euskal kolektibitatearen erakundeak izango dira euskaldunei horrelako zerbitzuak (ikastetxeak, umezurztegiak, zaharren egoitzak) eskainiko dizkietenak; baina hasiera-hasieratik euskal apaizek zerbitzu hauen norabide kristaua azpimarratzea lortuko dute. Horra hor, adibidez, Argentinan 1900 urtean fundatzen den *Euskal Echea*<sup>54</sup> elkarlaguntzarako erakundea; lehen lehendakaria erlijioso betharramita behenafar bat izango du: Frantzisko Laphitz (euskaltzalea eta euskal idazlea bera ere). Horrekin batera, zenbat eta hogeitapaiz euskaldun sartuko dira hasierako proiektuan, akzionista gisa, *Euskal Echea*-ren proiektuan; gehienak Iparraldekoak. *Euskal Echea*-k, azkenean, haren zerbitzuen zuzendaritza Euskal Herritik ekarritako elizgizon eta monjengan jarriko du: asiloak eta neskentzako ikastetxeak, Angeluko Mariaren Zerbitzarien eskuetan (1905) (Cfr. Alvarez 1993b); mutilentzako ikastetxeak, Nafarroako kaputxinoenetan (1908).

Baina beste alde batetik, apaiz

abertzaleek bazeukaten besteek baino zerbait gehiago euskal emigranteengan hurbildu nahiak areagotzeko. Argentinan, eta oro har Ameriketako herri "berri" guztietan, bizi ziren euskaldunen kopurua hain handia zenez gero, nonbait oso interesgarria zitzaion ideologia berriari lur berri horietan zehar hedatzea. Praktika hau ez zuten euskal abertzaleek soilik erabili; egoera bereberean aurkitzen ziren beste estatutik gabeko herri europarrek ere bide hori hartua zuten, hala nola Argentinan irlandarrek edo poloniarrek<sup>55</sup>.

Apaizen kanporaketak eta erbesteratzeak, sekulako aukerak eman zizkieten hedapen honi. Apaiz hauek, banaka zein taldeka heldu arren, laster elkarrekin batu eta berebiziko garrantzia hartuko zuten, Argentinako euskal kolonietan abertzaletasuna ezartzean, zabaltzean eta mantentzean.

Adibiderik argigarriena, Rosarioko *Zazpirak Bat* euskal etxearena izan zen. Erakunde honek, izenetik hasita azken puntaraino abertzale-abertzalea izan nahi zuen. Apaizen partaidetzak, seriotasun-kutsuaz gain, askotan babesa ere eman zien beste bultzatzaile abertzaleei; batez ere 1913tik 1921era dagoen tarte "ilunean", abertzaleen eta espainolisten arteko tirabira izugarriak zeudenean. Altzibar, Olaizola, Santisteban edo Aizpuru ez dira abertzaleengandik urrunduko, tinko jarraituko dute haien ondoan, lehen aipatu dugun bezala.

53. Honi buruz badago bibliografia zabala, baina tamalez ikerketa historikorik oraindik ez. Hala ere, deskribapen-hurbilpen egoki bat ikusi nahi baldin bada, cfr. Mieyaa-Azpiazu 1950.

54. Euskal Echeari buruz ere, hamaika iturri badugu, baina hala ere oraindik gai hau ukiturik gabe dago euskal historiografian. Hala ere, erakunde honen hasierako planteamendua ezagutzeko, ikus *Euskal-Echea. Bosquejo histórico y recopilación de las opiniones de la prensa diaria, vertidas con motivo de la presentación de sus colegios en Llavallol (F.C.S.)*, Buenos Aires, 1913.

55. Izan ere, Europako arazo politikoak inmigranteekin batera ez erakartzeko, Argentinan atzerriko alderdi politikoen presentzia zorrozki debekaturik zegoen.

Buenos Airesen ere, antzeko eginkizuna beteko dute euskal apaiz abertzaleek, batez ere *Euskal Echea*-ren ikastetxearen inguruan bildurik zeuden kaputxinoek. Fernando de Soloeta-Dima, euskara irakasteko ikastetxeak izan zuen lehen maisua, hizkuntzarekin batera aberriaren kontzeptu aranista ere zabaltzen hasiko zen; Soloeta Txinako misioetara joan zenetik, hasitako lana Bernardino de Estellak beteko zuen: 23 urteko klaseen fruitua 1931n eman zuen argitara, bere *Historia Vasca* liburuan. Bertan Euskal Herriko historiari buruz jeltzaleek defendatzen zituzten ideia guztiak biltzen dira.

Aldi berean, Buenos Aires-en ere, euskal koloniaren barnean borroka isil bat garatu zen 1910.eko hamarkada osoan zehar. Hamarkada horretan, Felix Ortiz San Pelayo euskaltzale karlista eta espainolistak gidaturiko taldeak Amerikako euskal etxerik zaharrena bere menpe izan zuen, abertzaleak alboratuz. Kaputxinoek gogotik lagundu zieten *Acción Nacionalista Vasca*<sup>56</sup> izenpean bildu ziren kanporatuei. Hainbat urtetan, Buenos Aires-en euskaldunek bi tokitan ospatuko dute Iñaki Deunaren jai nagusia (Argentinan euskaldun guztien patroï bihurtu dena): *Laurak Bat*-ek, normalean, sustrai euskaldunetako apaiz argentinarrek hartu zituen, batzuetan ideologia eskuindarrekoak (Bernardo Etchegoinberry

kanonigoa, gero Bahía Blanca-ko apezpikua izango den Leandro B. Astelarra<sup>57</sup>); *Acción Nacionalista*-k, *Euskal Echea*-ko kaputxinorik abertzaleenak.

1921ean, *Acción Nacionalista*-k *Laurak Bat*-i eraso egiteari eta bere kontrola eskuratzeari ekiten dio: Argentinako jai nazionalean (uztailaren 9an, independentziaren egunean), Miguel de Pamplona kaputxinoak bi ikurrin bedeinkatu zituen, non eta *Laurak Bat*-aren atarian. Isilka-isilka, zaratarik egin gabe, abertzaleak *Laurak Bat* erakundean sartu eta jadanik nagusitasuna lortua zuten.

Gerra ostean, adibideak areagotu egin ziren. 1940-1945 tartean Eusko Jaurlaritzaren ordezkariaren bultzadapean sortzen diren euskal etxe askotan, apaizak dira bultzatzaileak. Córdoba probintzian dagoen Villa Marian, 1925ean euskal trinitarioek suspertzen zuten euskal kolektibitateak erakunde ofizial bihurtzea erabakitzen du, non eta trinitarioen elizan. Buenos Aires-eko probintziaren hiriburuko *Euzko Etxea*, aldiz, La Platatik gertu dagoen Villa Elisako euskal kaputxinoek bultzatzen dute, batez ere Kasiano de Goldaratz nafarrak<sup>58</sup>.

Ekintza kulturaletan ere parte hartuko dute: 1946tik aurrera Buenos Airesen argitaratzen den *Boletín del*

56. Benetan, Euzko Alderdi Jeltzalearen "Junta extraterritorial" bat baino ez zen (*Aizederretako Euzkaditik at'ako Uri Buru Batzarra*), baina, dagoeneko esan dugunez, Argentinan alderdi politiko atzeritarrek ezartzerik ez zegoenez, ofizialki *Partido Nacionalista Vasco* izena alboratu eta horren ordez *Acción* hartu behar izan zuten.

57. Apaiz hau, 1939 urtean Bahía Blanca-ko apezpikua zen, eta Gerla Zibil guztian zehar frankisten aldeko propaganda egiten aritu zen. 1940an, Euskal Herritik ihesi datorren Felix Markiegi Olazabal apaiza bere diozesira heltzen da; Astelarrak, apaiz hori "gorri-separatista" madarikatu horietako bat dela jakinaren gainean egonda, onartzen du baina parrokiarik zailen eta urrutikoenetako batera bidaliko du, bere apaizgoaren kutsadura eragozteko edo.

58. Fundazio hauen guztien laburpena: *F.E.V.A...* (op. cit.).



*Instituto Americano de Estudios Vascos* delakoaren lehenengo bi zuzendariak, apaiz abertzale hauetako bi izan ziren: Gabino Garriga bilbotarra (Argentinan Gernikako bonbardaketa-  
ren inguruko egia lehen aldiz erakusten zuen liburua argitaratu zuena<sup>58</sup>), eta Bonifazio de Atahun kaputxino gipuzkoarra.

Azkenean, elizgizon hauek sekulako garrantzia edukiko dute, Gerra osteko euskal exilioa eratzeko unean, elizaren izenpean Ameriketara zeukatena erakuntza guztia, exiliatuena babeserako erabili ahal izan zutelako. Argentinan, Uruguayan, Venezuelan, erlijioso hauek benetako *lobby*-ak osatuko dituzte, herri haietan euskal exiliatuena sarrera errazteko eta bultzatzeko. Argentinan «Comité Pro-Inmigración Vasca» izeneko elkarteak sortzen da, zuzendaritzan Pedro Goikoetxea sakramentinoa daukala. Euskal-europarrek eta euskal-argentinarrak erdibana osatzen zuten komite honek, guraso euskaldunak zituen Roberto Ortiz Argentina-

ko lehendakariarengandik oso dekretu zabal bat lortzen du: bertan euskaldun guztien inmigrazioa onartzen da, edozein dokumentazio badaramate ere. Lege honen babespean, mila euskaldunetik gora Argentinaratuko dira, harik eta gobernu espainiarraren presioek kentzea lortzen duten arte, hurrengo urtean<sup>60</sup>.

Venezuelan jesuitak dira euskaldunei laguntza eskaintzen dietenak (cf. Alvarez 1991b). Nazio hartan aspalditik finkaturik zeudenez gero, ordutik aurrera Venezuelako goi-klaseko hainbat familia eta pertsoniarekin harreman zuzen eta estu-estuak zituzten euskal jesuitek. Caracas-en zeukatena ikastetxeetan, gizarteko goi-klaseetako semeen hezkuntzaz arduratzen ziren. Oso erraza izan zitzaie, beraz, agintariarengandik euskaldunentzako salbuespen-legeak lortzea. Espainiako errepublikar guztiei atearik izten zizkieten bitartean, euskaldunek sarrera libre izan zuten Venezuelan<sup>61</sup>.

## Bibliografia

- Alvarez Gila, O. (1991): "El Misionerismo y la presencia religiosa vasca en América (1931-1940). Dificultades y emigraciones forzadas", *Mundaiz*, 42, 89-102.
- , (1991b): "Bizkaitar jesuita garaikideak Hegoamerikan (1820-1960)", *Jesusen Lagundia Bizkaian*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 161-180.
- , (1992): "Euskal abertzaletasunaren sorrera Argentinan: Rosario-ko Zazpirak Bat euskal etxearen adibidea (1912-1935)", *Mundaiz*, 97-118.
- , (1993): "Francoren garaiko euskal Eliza eta Amerika: babeslekua eta arazoak iturburua", *Muga*, 84, 41-51.
- , (1993b): "La participación femenina en la atención espiritual a los vascos en Argentina y Uruguay: las Siervas de María de Anglet (1905-1991)", *I Congreso Internacional del Monacato femenino en España, Portugal y América, 1492-1992*, Leongo Unibertsitatea, Leon, I, 453-467.

59. José de Aralar ezizenarekin: *La rebelión militar española y el pueblo vasco*, Buenos Aires, Sebastián de Amorrortu, 1937.

60. Pedro Goikoetxea, sari gisa edo, Montevideo-ra destinatuturik pasatuko da. Ez zen Argentinara itzuliko, bisitan ez bazen.

61. Rubio, Javier; *La emigración de la Guerra Civil de 1936-1939*, Madril, San Martín, 1977, 196 or.

- Ansorena, J.L. (1973): "Necrologio del P. Benito de Icazteguieta", *Boletín Oficial de la provincia capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón*, 224.
- Astigarraga, A. de (1986): "Los patriotas y el Congreso Eucarístico" in *Abertzales en la Argentina*, Alderdi, Bilbo.
- Azcona Pastor, J.M. (1989): "América: el continente olvidado por la historiografía vasca entre 1940 y 1990", *Revista de Indias*, 187, 753-766.
- Boletín Eclesiástico de Vitoria*, 1913-XI-21, Gasteiz.
- Cambaceres, E. (1885): *Sin rumbo*, Buenos Aires.
- Cárcel Ortí, V. (1970): *Iglesia y revolución en España (18268-1874)*, Eunsa, Iruñea.
- Consejo Superior de Misiones (1961); *España Misionera. Catálogo de las misiones y de los misioneros españoles en el extranjero*, Madril.
- Elizondo, Mauro (1989): "Bizkaitarrismo e injerencias políticas en el gobierno interno de la Provincia capuchina de Navarra (1921-1922)", *Scriptorium Victoriense*, XXXVI, 200-224.
- Euzko Deya*, Buenos Aires, 1940-1942.
- F.E.V.A. Euzko Argentinarr Bazkun Alkartasuna* (1984), Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.
- García de Cortázar, F. (1988): "Iglesia vasca, religión y nacionalismo en el siglo XX", in ID. eta FUSI, J.P.; *Política, nacionalidad e Iglesia en el País Vasco*, Txertoa, Donostia.
- , eta Montero, M. (1980): *Historia Contemporánea del País Vasco*, Txertoa, Donostia.
- Gazteiztarra (1941): "Del clero vasco en la Argentina", *Anuario Almanaque Vasco*, Rosario, 77-78.
- Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria en el septuagésimo quinto aniversario de su restauración* (1932), Arantzazu mold., Oñati.
- Irujo, A.M. de (1968): "Don Tomás Yoldi y Mina", *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, XIX, 10-22.
- La Baskonia*, Buenos Aires, 1908-1921.
- Marcellán Eigorri, J.A. (1986): *Cierzo y bochorno. Fenómeno vocacional de la Iglesia en Navarra (1936-1980)*, Verbo Divino, Lizarra.
- Martínez-Peñuela Virseda, A. (1989): *Antecedentes y primeros pasos del nacionalismo vasco en Navarra, 1878-1918*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Mieyaa, P. eta Azpiazu, I. (1950): "L'oeuvre de Saint-Michel de Garicoïts en Argentine", *Gure Herria*, XXII, 313-315.
- Mújica, M. (1975): "Imperativos de mi conciencia" in Onaindia, A. de (arg.), *Ayer como hoy. Documentos del clero vasco*, Axular, Donibane-Lohitzune [1. arg.: 1945].
- Pirala, A. (1984): *Historia de la Guerra Civil y de los partidos liberal y carlista*, V. lib., Turner, Madril [1. arg.: 1853].
- Reuelta González, M. (1984): *La Compañía de Jesús en la España Contemporánea*, I, Comillas-Sal Terræ-Mensajero, Madril-Santander-Bilbo.
- Rubio, J. (1977): *La emigración de la Guerra Civil de 1936-1939*, San Martin, Madril.
- Sagarmínaga, Fidel de (1875): *Dos palabras sobre el carlismo vascongado*, Bilbo.
- Saiz, O. (1972): *De ruina ac restauratione in Peruvia Collegiorum Franciscalianum Propagandæ Fiei saec. XIX (1824-1860)*, San Antonio, Lima.
- Sánchez Erauskin, J. (1993): "Obispos vascos del 19 de julio", *Muga*, 36-43.
- Tonda, A.A. (1957): *Historia del Seminario de Santa Fe*, Santa Fe, 1957.
- Txorierri (1955): "Markina'ko «Estudiantie» il da", *Euskaltzaleak*, 5, 1.
- Zazpirak Bat (1953): *1912-1953. Inauguración del caserío*, Rosario.